

NOLA EGIN IDAZLAN ON BAT?

Zenbait gomendio, euskarazko idazlana hobeto egiteko

1. Komenigarria izaten da **aldez aurretik kalitatezko testuak euskaraz irakurtzea**. Ikusi nola aritzen diren idazle onak, aztertu beraien idazkera, eta buruan gorde gehien gustatzen zaizkizun egiturak, hitzak eta esamoldeak.
2. Banatu denbora, hiru ekintza hauek kontuan izanik: **eskema, idazlana bera eta zuzenketa**. Eskaini aldi bakoitzari merezi dituen minutuak.
3. Eskema egiten emandako denbora ez da lan alferra; izan ere, **eskema on batek gaiaren garapen egokia ziurtatzen du**, eta inprobisazioa baztertzen. Bestela, ideiak agortu, eta agindutako lerroak idatzi nahian, noraezean ibiliko gara eta betelanean hasiko.
4. **Errespetatu** ematen dizuten **gaia** eta proposatzen dizuten **idazki-mota**.
5. Idazten hasi baino lehen pentsatu ondo **zein den idazkiaren helburua** (informazioa ematea, zerbait eskatzea, konbentzitzea...), zein eragin sortu nahi duzun irakurleengan (harritzea, zure aldeko bihurtzea...), nolako tonua erabiliko duzun (formala...), eta abar.
6. Litekeena da euskara zure ama-hizkuntza ez izatea edota erdara baino gutxiago menperatzea. Jakin ezazu **euskaraz idazterakoan zure mailak zeozer jaitsi behar duela ezinbestez**; hau da, erdaraz esaten dituzun gauza batzuk edo esaten dituzun moduan nekez eman ahalko dituzula euskaraz. Hori onartzea eta apaltasunez jokatzera abiaburu ona izaten da.
7. **Eginahalak egin euskaraz pentsatzeko, eta ez gaztelaniaz**. Egizu kontu gaia ahoz azaldu behar duzula, hizketan. Horrek izan behar du zure abiapuntua, eta hortik aurrera, nahi duzun bezala apaindu idazlana, beti ere, euskal diskurtsoan oinarriturik.
8. Aztertzaileek gutxieneko abstrakzio maila eskatu ohi dute. Istorioak, pasadizoak... ondo daude eta onargarriak dira, gaia eta argudioak biribiltzeko. Baina, maiz, **idazlana anekdotetan oinarritzea adierazpen pobreziaren erakusgarri izan daiteke**.
9. **Komunikagarritasunak izan behar du gure helmuga**. Aztertzaileak behin bakarrik irakurri beharko luke esaldi bakoitza; hortaz, ez luke zertan ibili saltoka esanahiari antzemateko. Hori dela-eta, testua zuzentzerakoan kontuan izan behar dugu guretzat argi eta garbi adierazita dagoena irakurlearentzat ilunagoa izan daitekeela. Beraz, zalantzarik badago, hobe berridaztea.

10. Izenburuak, azpi-izenburuak, oinoharrak eta horrelakoak lagungarriak izan daitezke testua egituratzeko.

11. Erabili lerroaldeak azpigaiak garatzeko.

12. On da papera aurreztea, baina utzi arnasten testuari. Marjinak eta zuriuneak eskertzekoak dira, gutxiago idazteko aitzakia gisa hartzen ez badira, behintzat.

13. Idazlanen ehuneko handi batek "ohiko" hasiera izaten du, adibidez: Gaur egun argaltzea da gure gizartea gehien kezkatzen duen gaietariko bat. Ez ahaztu lehen lerroaldeak aztertzailearen arreta erakartzeko balio duela, eta bide ugari dagoela horretarako; horietako bat, originaltasuna.

14. Idazlanaren azken lerroaldearekin agur egiten diozu aztertzaileari. Presaka ibili arren, testu bat ezin da edozein modutan amaitu. **Ahalegindu zaitez, beraz, zure idazlanari nolabaiteko betetasuna ematen.**

15. Idatzian aurrera egin ahala, kontzentrazioa galdu egiten da askotan, eta, horren ondorioz, akatsak pilatu egiten dira bukaeran. **Eutsi kontzentrazioari,** izan ere, hasiera onek ez dute ezertarako balio, behin erdialdera helduta hankasartze guztiak biltzen badira.

16. Idazten ari zarela, **aukeratu hitz egokiak eta zehatzak,** azaldu nahi duzuna adierazteko.

17. Gehienez ere **20-25 hitzeko esaldiak idaztea komeni da ideiak jorrazteko.** Edozein modutan ere, monotonia hausteko, esaldi luzexegoak eta laburtxoagoak tartekatu, erritmoarekin jokatu.

18. Testuaren baitan perpausek elkarri uztarturik egon behar dute; eta **lerroaldean artean ere halako lotura bat beharrezkoa da,** horrek bideak urratzen baitizkio ideien garapenari.

19. Arestian esan dugu idazten hasi aurretik garbi izan behar dugula zein den gure helburua eta baita testuan barrena erabiliko dugun tonua ere. Hori horrela, zenbait idazki formaletan **tokiz kanpo egon daitezke honelako esamoldeak: kristona, demasa ...**

20. Azterketari askorentzat, puntuazio-zeinuak jartzeko garaian, eta kasurik hoberenean, **koma eta puntua** besterik ez dago; eta, batzuetan, gaizki erabilia. Gogoratu bestelako zeinuak ere hortxe ditugula eta **testua antolatzen laguntzen digutela: galdera eta harridura markak,** efektu erretoriko batzuk sortzeko; **parentesiak eta marra luzeak,** azalpenak esaldi nagusitik kanpo ateratzeko; eta horrela... asko eta asko.

21. Egitura batzuk, nahigabe, **errepikatzeko joera daukagu,** eta testuak - (e)larik, -z, bait eta horrelakoez betetzen dira. Azterketa egin baino lehen, aztertu zein diren zure errepikapenak eta saiatu kontrolatzen eta parekoak

bilatzen.

22. Arreta handiz begiratu aztertzaileek ere arreta handiz begiratuko dituzten gauzak (ergatibo markak, pluraltzaileak....), edota etxean edo klasean egiten dituzun idazlanetan gehien errepikatzen dituzun akatsak (ergatibo pluralak, erlatibozko esaldiak eta konpletiboak nahastu...).

23. A!, ez ahaztu: aldaketa bat egiten duzun bakoitzean, begiratu ea nahi gabe arazoren bat sortarazi duzun **komunztaduran.**

IDAZLANA IDAZTEKO...

1. Aukera ezazu gai hauetariko bat:

✚ Teknologia berriak

✚ Kirola

✚ Zinema

✚ Erretzea

✚ Gimnasioak

✚ Elikadura

✚ Neska-mutilak

✚ Azterketak

✚ Hondartza

✚ Mendia

✚ Kiloak

✚ Trafikoa

2. Bota gai horri buruz burura datozkizun ideia guztiak

Ez bazaizu ezer bururatzen egin iezazkiozu galderak zeure buruari, eta erantzunak ideiak izango dira.

Adibidez: Zenbat auto dago? Zenbat pertsona joaten da auto batean, normalean? Non aparkatzen dira? Zeintzuk arazo sortzen dute autoek?, etab.

Adibidez:

Gaia: Trafikoa

Ideien zerrenda:

Hirietan trafiko handia dago.

Lanera joateko jende guztiak autoa erabiltzen du.

Auto bakoitzean, normalean pertsona bakarra joaten da.

3. Orain zerrendan jarri dituzun ideiak ordenatzen saiatuko zara, logika bati jarraituz, noski!

Ez badakizu nola ordenatu...:

- ✦ Lehenengo eta behin pentsatu norentzat idatziko duzun, hau da, zein pertsonak irakurriko duen zuk idatzitako idazlana.
- ✦ Bigarrenik, zein helbururekin idatziko duzun, adibidez; gaiari buruz informazio emateko, kritika zorrotza egiteko, defendatzeko, etab.
- ✦ Hirugarrenik interesatzen zaizkizun ideiak bakarrik aukeratu eta besteak baztertu.
- ✦ Laugarrenik: ideia horiek ordenatu garrantziaren arabera.

Ideia-zerrenda ordenaturik:

Sarrera:

Hirietan trafiko gehiegi dago.

Garapena / Mamia:

Kutsadura handia sortu da trafikoa dela eta.

Ez dago aparkatzerik.

Amaiera:

Hirietan *bidegorri* gehiago.

Txirrindularen erabilpena bultzatu beharko litzateke.

4. Orain, saiatu idazlan on bat egiten

Kontuan hartu pasarte bakoitzean ideia bakarra idatzi behar duzula.

Pasarteak lotu behar dituzu, idazlana koherentea izateko eta kohesioa eduki dezan, telegrama ez bihurtzeko. Honetarako erabili bai lokailuak bai juntagailuak.

TESTUARI KOHESIOA EMATEKO BALIABIDEAK

1. INFORMAZIOA GAINERATZEN DUTE

- ✚ Gainera: además
- ✚ Halaber: asimismo
- ✚ Orobat: asimismo
- ✚ Honekin (horrekin) batera: además de esto (eso)
- ✚ Horrez gain: además de esto
- ✚ Era berean: asimismo

2. KONTRASTEAK ETA KONTRAKOTASUNA

- ✚ Baina: pero
- ✚ Dena dela / dena den
- ✚ Hala ere: sin embargo
- ✚ Hala eta guztiz ere: sin embargo

- ✚ Halarik ere: sin embargo
- ✚ Haatik: no obstante
- ✚ Alabaina: no obstante
- ✚ Edonola ere: en cualquier caso
- ✚ Edozein modutan ere: en cualquier caso
- ✚ Edozein kasutan ere: en cualquier caso
- ✚ Ordea: en cambio
- ✚ Ostera: en cambio
- ✚ Aitzitik: en cambio
- ✚ Aldiz: en cambio

3. KAUSA-ONDORIOA

- ✚ Bada: por tanto, en consecuencia
- ✚ Beraz: por tanto, en consecuencia
- ✚ Ondorioz: por tanto, en consecuencia
- ✚ Ondorenez: por tanto, en consecuencia
- ✚ Hortaz: por tanto, en consecuencia
- ✚ Honenbestez, horrenbestez, hainbestez: por tanto, en consecuencia
- ✚ Hori dela-eta: por eso

4. ADIBIDE EMATEA

- ✚ Adibidez: por ejemplo
- ✚ Esate baterako: por ejemplo
- ✚ Alegia: es decir
- ✚ Kasu: es decir
- ✚ Hau da: es decir
- ✚ Hots: es decir
- ✚ Bestela esanda: dicho de otra forma
- ✚ Hori argitzeko: para aclarar eso

5. DISTRIBUTIBOAK

- ✚ Batetik... bestetik...: por un lado... por otro
- ✚ Alde batetik... bestaldetik...: por un lado... por otro

6. KONPARAKETA

- ✚ Era berean: igualmente
- ✚ Modu berean: igualmente

7. DENBORA

- ✚ Lehen: antes
- ✚ Antzinean: antiguamente
- ✚ Aldi berean: simultáneamente
- ✚ Honez gero, horrez gero, harez gero: después de esto (eso, aquello)
- ✚ Lehenik, bigarrenik...: en primer lugar, en segundo...
- ✚ Lehenengo eta behin: antes que nada
- ✚ Lehenik eta behin: antes que nada

8. LABURPENA

- ✚ Azkenik: al fin y al cabo
- ✚ Azken batean: al fin y al cabo
- ✚ Labur esanda: resuminedo
- ✚ Hitz gutxitan: en pocas palabras

9. HASIERA EMATEKO ESAKUNEA

- ✚ Esku artean dugun gaia, dudarik gabe, garrantzia handikoa da: este tema es sin duda de gran importancia,
- ✚ Irakurleak / entzuleak ondo dakienez...: como bien sabe el lector
- ✚ Ezer baino lehen...: antes que nada
- ✚ Azken bolada honetan sarritan entzun dugu ...-(e)la: últimamente hemos oído muchas veces que
- ✚ Gogora datorkit irakurri berria / entzun berria dudun zerbait: me viene a la memoria algo que he leído recientemente
- ✚ Duela zenbait urte...: hace unos años

10. TARTEKO ESAKUNEA

- ✚ Demagun / jo dezagun ... -(e)la: supongamos que...
- ✚ Aipa dezadan bidenabar ... -(e)la: mencionemos de paso que...
- ✚ Guztiok dakigu ... -(e)la: todos sabemos que...
- ✚ Horrelakoetan gertatu ohi denez...: como suele ser habitual en esas

situaciones...

- ✚ Horri guztiari gaineratuko nioke / gehituko genioke...: a todo eso le añadiría...
- ✚ Gatozen harira: vayamos al grano
- ✚ Nire uste apalean...: en mi humilde opinión...
- ✚ Gogora dezagun...: recordemos...

11. AMAIERA EMATEKOAK

- ✚ Bukatu baino lehen...: antes de terminar...
- ✚ Aurreko guztiak laburbilduz...: resumiendo todo lo anterior
- ✚ Laburbilduz...: resumiendo...
- ✚ Azkenik...: en último lugar...
- ✚ Bukatzeko, hitz bi...: dos palabras para terminar